



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urtarrilaren 10a

2. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (17. or.).
- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (17. or.).
- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Akats zuzenketa (17. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, mihi urdinaren gaitza dela-eta hartuko diren neurri zehatz eta prebentziozkoen buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 62/2007 Ebazpena, abenduaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak emana, erakundearen bidezaintza fitxategia sortzen duena (19. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.**

### *ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129 artikulua ezarritakoa betez, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuko artikuluei aurkezturiko zuzenketak argitaratu daitezzen agintzen da. Foru lege proiektua 2007ko azaroaren 28ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko abenduaren 20an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### **1. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 5. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

Orain arte 25. artikuluko 2. idatz-zatia izan dena 3. idatz-zatia izanen da.

“2. Etxebizitzarako diren ondasun higiezin errentamenduetan, % 30 murriztuko da aurreko idatz-zatian adierazitakoari jarraikiz kalkulaturako etekin garbi positiboa.

Murrizketa aplikatuko da, bakar-bakarrik, subjektu pasiboak aitortutako etekinetan.”

Zioak: Errentamendua bultzatzeko pizgarri berri batean, zuzentzea behar da Foru Ogasunaren dirusarrerak ere defendatzeko. 100eko 0tik ehuneko 55era pasatzea talka-neurri bat baino gehiago, neurri justifikaezin bat da, beste eremu fiskal batzuk ere kontuan hartuz gero. Muntako pizgarria da 100eko 30.

Bestalde, errentariak, zeinak ordainketa aitortzen baitu, bere deskontuan horren pareko onura jaso beharko luke, eta horixe ere pizgarri bat izanen litzateke.

### **2. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 7. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ziurgabetasun juridikoa sortzen du, zeren eta “eratzeko edo lagatzeko” kontzeptuek, 28. artikuluan (moneta-inbertsioengatik errentak) eta 29. artikuluan (kapitalaren etekinak) sarturiko higiezin buruz ari garenean, eragin baitezakete argi ez egotea kostu bidezko ala irabazizko lagapenak diren.

### **3. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 8. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ziurgabetasun juridikoa sortzen du, zeren eta “eratzeko edo lagatzeko” kontzeptuek, 28. artikuluan (moneta-inbertsioengatik errentak) eta 29. artikuluan (kapitalaren etekinak) sarturiko higiezin buruz ari garenean, eragin baitezakete argi ez egotea kostu bidezko ala irabazizko lagapenak diren.

### **4. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 10. idatz-zatikoa a) letra (bigarren lerroa) aldatzeko zuzenketa.

Eskualdaketa ondorengo ahaide baten edo gehiagoren alde egitea, edo hirugarren maila bitarteko odol bidezko alboko ahaide baten edo gehiagoren alde, maila horretakoak barne.

Zioak: Terminologia juridikoa zuzentzearen.

**5. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 10. idatz-zatiko c) eta d) letrak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Eskualdatzailearen izaera ez da kontuan hartu behar ondarearen gehitzearen edo gutxitzearen kontzeptuaren ondorioetarako, hala adinari dagokionez nola lanerako ezintasunari dagokionez.

Bestalde, 4-b)-c') idatz-zatian jada egokiago adierazirik dago administrazioak jakinarazpena egiteko daukan betebeharra.

**6. ZUZENKETA****NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluan beste puntu bat –hamahiru bis– gehitzeko zuzenketa. 22/1998 Foru Legeko 55. artikulua aldatuko du, 3. puntutik amaierara arte; honela geldituko da:

Idatz-zati berria. Hamahiru bis.

“3. Gutxieneko pertsonalagatik, subjektu pasibo bakoitzeko 3.700 euro urteko.

4. Artikulu honetan aipatzen diren kenkariak hurrengo arauetara jarraituz egiten dira:

1. Aurrena, 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoak aplikatuko dira.

2.a. Emaidza positiboa bada, 3. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuko da, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Emaidza negatiboa bada, 3. idatz-zatian ezarritako murrizketa aplikatuko litzaioke zerga-oinarriaren zati bereziari, negatibo bihurtu gabe ere.”

Zioak: Lege bereko 62. artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin bat etorriz, zerga oinarriko familia kenkariak kendu eta 62. artikulura eramaten ditugu, tributu-kuotako kenkari bihurtuta.

**7. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluan beste idatz-zati bat –hamahirugarrena bis– gehitzeko zuzenketa. 55.6 artikulua testu berria.

“6. Alderdi politikoentzako kuotengatiko eta ekarpenengatiko murrizketa.

Alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteetako afiliazio-kuotak eta ekarpenak, urteko 600 euro bitarte, betiere kuota eta ekarpen horiek Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera kreditatuta egonez gero.”

Zioak: Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak alderdi politikoak eta antzeko entitateak –federazioak, koalizioak edo hautesle-elkarteak– finantzatzeko dauden bideak aldatu eta argitu ditu.

Haietan afiliaturiko pertsona fisikoen kuoten eta ekarpenen bitartez lorturiko dirusarrerak dira entitate horiek finantzatzeko bideetako bat.

Kontuan hartuta PFEZari buruzko estatuko arauak antzeko neurri bat ezarri dutela, kenkari bat sartu da PFEZaren zerga-oinarrian, pertsona fisikoek alderdi politikoei eta antzeko entitateei ordaindutako afiliazio kuoten eta ekarpenen zenbatekoengatik, urteko 600 euroko mugarekin.

Halere, arlo honetan ahal den gardentasun handiena egon dadin, zehaztu beharra dago aipatu lege organikoaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera kreditatu beharko direla afiliatuen kuota eta ekarpen horiek.

PFEZaren zerga-oinarrian gutxitze hori ezartzearen ondorioz –55. artikuluko 6. idatz-zatian jaso zen–, 55. artikuluari 7. idatz-zatia gehitu behar zaio, eta hura 2. zuzenketaren bitartez sartuko da.

**8. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluan beste idatz-zati bat –hamahirugarrena ter– gehitzeko zuzenketa. 55. artikuluan 7. idatz-zatia gehitzea.

“7. Artikulu honetan aipatutako murrizketak ondoko arau hauei jarraikiz egiten dira:

Lehena. Lehenbizi aplikatuko dira 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoak, bai eta hamabosgarren, hamaseigarren eta hogeigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoak ere.

Bigarrena. Emaidza positiboa bada, 3., 4., 5. eta 6. idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuko da, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Emaidza negatiboa bada, 3., 4. eta 5. zenbakietakoak zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia gutxitzeko aplikatuko dira.”

Zioak: Arestiko 1. zuzenketa azaldu bezala, 55. artikuluan 7. idatz-zatia gehitu behar da, zergari buruzko foru legeko 55. artikuluan arauturiko zerga-oinarriaren murrizketak aplikatzeko arauak zehaztearren. Arau horiek gaur egun 55. artikuluko 6. idatz-zatian daude, eta 1. zuzenketarekin hura aldatu nahi da, alderdi politikoei ordaindutako kuoten eta ekarpenen zerga-oinarriaren beste murrizketa bat sartzeko.

Gainera, 7. idatz-zati berri horretan zuzenketa tekniko batzuk egin behar dira, beste agindu batzuei buruzko erreferentziak aldatzeko; izan ere, erreferentzia horiek aldaturik daude, hain zuzen ere 55. artikuluko 6. idatz-zatiaren testu berriaren ondorioz. Bestalde, aukeraz baliatu beharra dago 1. arauan argi uzteko (nahiz eta horrela ulertu behar zen, zalantza batzuk gorabehera) lehenbizi aplikatuko direla, halaber, minusbaliotasunen bat duten pertsonen gizarte aurreikuspeneko sistemetarako ekarpenen murrizketak (15. xedapen gehigarria) bai eta kirolari profesionalen mutualitateari ekarpenen murrizketak (16. xedapen gehigarria) eta ezgaituen ondare babesturako ekarpenen murrizketak (20. xedapen gehigarria) ere.

## 9. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan beste idatz-zati bat –hamahirugarrena quáter– gehitzeko zuzenketa. 57. artikuluan testu berria.

57. artikulua. Aurrezkiaren likidazio oinarri berezia.

“Aurrezkiaren oinarri likidagarri berezia kalkulatzeko, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati bereziari 55. artikuluan 7. idatz-zatiko 2. arauan aipatutako murriztapena aplikatuko zaio, hala egokitzen bada.”

Zioak: Zuzenketa tekniko bat da, 55. artikuluko 7. idatz-zatiko 2. arauaren aipamena aldatzeko, 7. idatz-zati berri hori 2. zuzenketaren bidez 55. artikuluan sartzearen ondorioz.

## 10. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

22/1998 Foru Legeko 57. artikulua aldatzen duen 1. artikuluan beste idatz-zati bat -hamahiru ter- gehitzea. Honako testua izanen du:

Idatz-zati berria. Hamahiru ter. Likidazio oinarri berezia.

“Likidazio oinarri berezia kalkulatzeko, zerga-oinarriaren zati bereziari aplikatuko zaio 55. artikuluan 4. idatz-zatiko 2. arauan aipatzen den murrizketa, hala egokitzen bada.”

Zioak: Lege honetako 55. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

## 11. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

1. artikuluan hamalagarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“Hamalau. 59.1. artikulua.

1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria Gehienez (euroak)	Kouta osoa (euroak)	Oinarriaren soberakina (euroak)	Aplikatzekoa den tasa Portzentajea
		3.672	13
3.672	477,36	4.488	22
8.160	1.464,72	8.670	25
16.830	3.632,22	12.750	28
29.580	7.202,22	14.790	36
44.370	12.526,62	16.630	42
60.000	19.211	Hondarra	49”

Zioak: PFEZaren gehikortasuna eta zerga-bilketarako ahalmena areagotzearen aldekoak gara.

**12. ZUZENKETA****NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 14. puntua aldatzeko zuzenketa.

1. artikuluko hamalagarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

59.1. artikulua.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria Gehienez (euroak)	Kouta osoa (euroak)	Oinarriaren soberakina (euroak)	Aplikatzekoa den tasa Portzentajea
		3.672	13
3.672	477,36	4.488	22
8.160	1.464,72	8.670	25
16.830	3.632,22	12.750	28
29.580	7.202,22	14.790	36
44.370	12.526,62	16.830	42
61.200	19.595,22	Hondarra	44”

Zioak: Gure ustez, gehienezko tasari eutsi behar zaio.

**13. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

1. artikuluari beste idatz-zati bat -hamalau bis-gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“59. bis artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako likidazio oinarri orokorra gaurkotzea.

Urtero, Nafarroako Gobernuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako 59.1 artikuluko likidazio oinarrien eta tipo indardunen taula gaurkotuko du, horretarako behar den deflaktazioa eginez likidazio oinarrietan, Nafarroako Foru Komunitateko kontsumorako prezioen indizearen urteroko aldakuntzaren ehunekoaren arabera.

Gaurkotze hori eginen da behar den foru dekretua urte bakoitzeko urtarrilean onetsiz eta argitaratuz.

Taula berria aplikatuko zaio aurreko urteko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldiari”

Zioak: Modu egonkor eta iraunkorrean bermatzea prezioen inflazioak ez duela eragin gisa izanen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan presio fiskala gehitzea.

**14. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

1. artikuluari beste idatz-zati bat -hamalau tergehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Artikulu berria. 60. artikulua.

60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziak foru lege honetako 59.1 artikuluko eskalan ezarritako karga-tasa izanen du.”

Zioak: Plusbalioen kargak ezartzean gehikortasuna ezartzearen aldekoak gara.

**15. ZUZENKETA****NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan beste idatz-zati bat gehitzea, hamalagarrenaren eta hamabosgarrenaren artean; haren bidez, 62.1.c) artikulua aldatuko da. Honela geldituko da:

“c) Ohiko etxebizitza edo etxebizitzak erosi edo zaharberritzeagatik egindako kenkariei dagozkien oinarrien zenbateko osoak ezin izanen du 120.000 euroko zenbatekoa gainditu, subjektu pasiboaren zerga-aldien batura aintzat hartuz”

Zioak: Etxebizitzen egungo prezioa ikusita, 90.150 euroko kopurua txikiegia da. Gainera, ez da logikoa kopuruak ondarearen gaineko zergarako aldatzea eta ez aldatzea PFEZaren kenkarirako.

**16. ZUZENKETA****NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan beste idatz-zati bat gehitzea, hamalagarrenaren eta hamabosgarrenaren artean; haren bidez, 62.1.f) b') letra gehituko zaio. Testu hau izanen du:

62.1.f) b') artikulua.

“Kasu honetan, ez da egonen kenkarirako gehieneko oinarriko muga, urteko 9.015 eurokoa.”

Zioak: Obrak egiten badira ezgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitzak egokitzeko, gure ustez ez dago zertan 9.015 euroko muga jarri. Normalean, obrek askoz ere diru gehiago kostatzen dute, eta gainerakoarengatik kenkaria aplikatzeko aukera galtzen da.

## 17. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hamaseigarren idatz-zatia –haren bidez, 62.2 artikulua aldatzen da–, aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“Idatz-zati berria. Kenkaria, ohiko etxebizitza alokatzeagatik.

Zergaldian zehar ohiko etxebizitza errentan hartuta izateagatik ordainketak egin behar izan dituzten zergadunek, honako bi kenkari hauetako bat aplikatu ahal izanen dute:

a) Zergaldian ordaindutako diru kopuruen ehuneko 20, eta, betiere, 1.200,00 euro urtean, gehiezez.

b) Zergaldian ordaindutako diru kopuruen ehuneko 25, eta, betiere, 1.500,00 euro urtean, gehiezez, baldin eta zergadunak bi baldintza hauetako- ren bat betetzen badu:

- 35 urte baino gutxiago izan.
- Familia ugariaren titularra izan.

Artikulu honetarako, zergadunaren adina zehazteko, zergaldiaren hasiera-eguneko egoera hartuko da aintzat.

Baterako zerga-ordainketa hautatzen bada eta kenkari hori aplikatzeko eskubidea duten pertsona bat baino gehiago badaude, 35 urte baino gehiagokoak batetik eta adin horretatik beherakoak bestetik, haietako bakoitzak, artikuluko honetako 1. idatz-zatiarekin bat, dagozkion ehuneko eta muga aplikatuko ditu.

Kenkariak egiteko, hurrengo baldintzak bete beharko dira:

a) subjektu pasiboak ez izatea zergaldian 30.000 euro baino gehiagoko errentarik, errenta salbuetsiak kontuan hartu gabe.

b) alokairuagatik ordaindutako diru kopuruak handiagoak izatea subjektu pasiboak zergaldian

eskuratutako errenten ehuneko 10 baino, errenta salbuetsiak kontuan hartu gabe.”

Zioak: Errentamendurako pizgarri fiskalak onuragarria izan behar du, halaber, errentariarentzat; hartara, pizgarria 25.2 artikuluan jabearentzat ezarritako onurarekin orekatu behar da. Gainera, gazteentzako eta familientzako edo gazteak elkarrekin bizitzeko errentamendua bultzatu behar da, bizitoki berriak ezarri ahal izateko.

## 18. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan beste idatz-zati bat –hamasei bisgehitzeko zuzenketa. Haren bidez, 62. artikuluari 9. idatz-zatia gehitzen zaio:

(62. artikulua. Kuota-kenkariak).

“9. Familia- edo bizikidetasun-unitateengatik kenkaria.

a) Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ezkongabe bakoitzagatik honako kenkari hauek aplikatuko dira:

Lehenbizikoagatik: 462 euro.

Bigarrenagatik: 490 euro.

Hirugarrenagatik: 700 euro.

Laugarrenagatik: 938 euro.

Bosgarrenagatik: 1.064 euro.

Seigarrenagatik eta hurrengoengatik: 1.232 euro.

Letra honetan ezarritako zenbatekoen aplikazioarako eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide bakoitzeko edo adoptatu bakoitzeko, urtean 392 euroko kenkari osagarria aplikatuko da, aurrekoaren arabera aplikatzekoa den kenkariaren gain. Adopzio kasuetan murrizketa hori aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

Nazioarteko adopzio baten bidez adoptatutako pertsona bakoitzeko ere, 1.200 euroko beste kenkari bat aplikatuko da. Epaileak noiz ematen duen adopzioa eratzeko ebazpena, zergaldi horretan aplikatuko da kenkari hori.

Ez da kenkaririk izanen hurrengo egoeraren batean dauden ondorengo ahaideengatik:

– Zergaren sortzapena baino lehen hogeita hamar urte baino gehiago dituztenengatik, idatz-zati honetako d) letran jasotzen den salbuespena salbu.

– Lanbide arteko oinarrizko soldata baino handiagoak diren urteko errentak, salbuetsiak barne, jasotzen dituztenengatik.

Ondorengo ahaideren bat gradu bereko aurreko ahaide batzuekin bizi denean, kenkaria zati berdinean hainbanatuko da aurreko bakoitzaren aitorpenean.

Ahaidetasun maila desberdina duten aurreko ahaideekin bizi diren ondorengo ahaideen kasuan, maila hurbileneko aurreko ahaideek soilik izanen dute kenkaria izateko eskubidea. Hurbileneko aurreko ahaideen artean inork ez badu dagokion zergaldiaren garaian urteko lanbide arteko oinarritzko soldatetik gorako errentarik, salbuetsiak barne, kenkaria urrunagoko mailako ahaideek aplikatzeko aukera izanen dute.

Letra honetan ezarritako kenkaria aplikatzekoa izanen zaie baita ere, beharkizun eta baldintza beretan, aplikatzekoa den legedi zibilari jarraikiz eginiko tutoretza kasuei, bai umeordetza eta harrera kasuei ere.

b) Subjektu pasiboarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzeko, haren urteko errentak, salbuetsiak barne, kasuan kasuko zergaldian lanbide arteko gutxieneko lansaria gainditzen ez badu: 252 euro. Zenbateko hori 560 eurokoa izanen da, aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko ahaide horien familia unitatearen urteko errentak, salbuetsiak barne, gutxieneko lansari horren halako bi baino gehiagokoak ez badira, kenkaria 252 eurokoa izanen da haietako bakoitzeko. Zenbateko hori 560 eurokoa izanen da, aurreko ahaideek hirurogeita hamabost urte edo gehiago badituzte.

Aurreko ahaideak subjektu pasibo bat baino gehiagorekin bizi baldin badira, kenkaria hainbana eginen da bakoitzaren aitorpenean. Seme-alabek ezin izanen dute kenkaria gauzatu beren gurasoek horretarako eskubidea baldin badute.

c) Hirurogeita bost urte edo gehiagoko subjektu pasibo bakoitzeko: 252 euro. Zenbateko hori 560 eurokoa izanen da, subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

d) Ezgaitua den subjektu pasibo bakoitzeko, lehen aipaturiko kenkariez gain, jarraian adierazten den kenkaria aplikatuko da, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraituz finkaturiko ezgaitasun-mailaren arabera:

Ezgaitasun-maila	Kenkariak (eurotan)
Ehuneko 33koa edo handiagoa, eta ehuneko 65 baino txikiagoa.	700
Ehuneko 65ekoa edo handiagoa	2.520

Kenkari bera aplikatu beharko da ondorengo ahaide, aurreko ahaide, ezkontide edo laugarren gradurainoko (hori ere barne) alboko ahaide bakoitzeko, edozein adinetakoak direlarik ere, baldin eta haiek, zergadunaren menpean egonik eta kasuan kasuko zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldataren bikoitza baino urteko errenta handiagorik ez izanik, minusbaliatuak badira.

Kenkari hori bateragarria izanen da aurrean adierazitakoaren arabera aplikatzekoak diren kenkariekin.

Era berean, kenkari hau aplikatzea bidezko izanen da baldin eta ezgaitasuna duen pertsonak subjektu pasiboarekin lotura badu aplikatzekoa den legedi zibileko tutoretza, umeordetza edo harrera bidez, eta aurreko lerrokadan errenta-mailari buruz adierazitakoa betetzen bada.

Kenkari horretarako eskubidea ematen duten pertsonak subjektu pasibo bat baino gehiagoren esku baldin badaude, kenkaria haien artean hainbanatuko da bakoitzaren aitorpenean.

e) Subjektu pasiboak 616 euroko kenkaria izan ahalko du pertsona lagundutzat hartzen den senide bakoitzeko, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak horretarako ezarri dituen irizpide eta baremoen arabera, eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada.

Lagundutako pertsonaren ezkontideak edo bikotekide egonkorak eginen du kenkaria eta, halakorik egon ezean, graduaren arabera hurbilen duen senideak. Gradu bereko senide bat baino gehiago baldin badago, kenkaria hainbanatu eginen da.

Kenkaria egiteko eskubidea duen subjektu pasiboaren urteko errentek –salbuetsitako errentak barne direla– lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen ez dutenean, graduan hurrengo direnei, halakorik bada, pasatuko zaie kenkaria.

Letra honetan aurreikusi den kenkaria ezin izanen da aplikatu lagundutako pertsonak aurreko letran ezarritako kenkarirako eskubidea baldin bada.

Pertsona lagundua izatea eta subjektu pasiboarekin bizitzea frogatu egin beharko dira, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak urtero emandako ziurtagiriarekin.

f) Subjektu pasiboak eskubidea izanen du Gizarte Segurantzari egindako kotizazioengatik zergaldian ordaindutako zenbatekoaren % 25eko kenkaria izateko, baldin eta kotizazio horiek egin badira 16 urtetik beherako ondorengo ahaideak zaintzeko edo subjektu pasiboarentzat b), c), d) eta e) letretan jasotako kenkariak aplikatzeko eskubidea sorrarazten duten pertsonak zaintzeko xedez familiaren etxean lan egiten duten pertsonekin formalizaturiko kontratuen ondorioz.”

Zioak: Kenkariak kuotan aplikatzearen sistemari bidezkoago deritzogu kenkariak oinarrian aplikatzearen gaur egungo sistemari baino, antolamendu horrek amaieran duen eraginak ez duelako loturarik zergadunaren errenta-mailarekin. Kenkaria oinarriari aplikatzeko sisteman mesede egiten zaie errentarik altuenei.

## 19. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA ETA  
UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTU-TALDEEK ETA  
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

1. artikuluari beste idatz-zati bat –hamasei bis– gehitzeko zuzenketa. 67. bis artikuluari 3. idatz-zatia erantsiko zaio.

“3. Gizarte Segurantzatik zahartzaroko eta elbarritasunerako nahitaezko aseguruaren (SOVI) pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, alargun-pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa den beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde aurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egingen. Erregelamendu bidez arautuko da kenkaria baliatzeko prozedura, bai eta alde aurretiko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

Alargun-pentsioa ez bada zergaldi osoan jaso, artikulua honetako 1. idatz-zatiaren bigarren lerroka-dan ezarritakoari jarraituko zaio.”

Zioak: PFEZari buruzko Foru Legeko 67. bis artikuluari 3. idatz-zatia gehitzen zaio, SOVIren alargun-pentsioak jasotzen dituzten pertsonen alargun-pentsioengatik kenkarirako eskubidea izan dezaten.

Jakina den bezala, SOVI Gizarte Segurantzaren araubide berezi eta hondarrekoa da, araubide horrek exijitzen dituen baldintzak bete eta Gizarte Segurantzaren sistemako beste pentsio baterako eskubiderik ez duten langileei eta haien eskubide-dunei aplikatzen zaiena; horretan, alargun-pentsioak salbuespena dira.

SOVIren alargun-pentsioen zenbatekoa oso txikia da eta egokia da Nafarroako Foru Komunitateak, bere tributu-sistemaren bitartez, pentsio horiek lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea.

Parekatze hori artikulatzen da Gizarte Segurantzaren sistemako gutxieneko osagarria duten alargun-pentsioen PFEZaren egungo kenkariaren antzera. Kenkariaren zenbatekoa izanen da SOVIren alargun-pentsioaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko aldea, betiere bien urteko zenbatekoa hartuta.

Hala eta guztiz ere, kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, alargun-pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa den beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Gutxieneko osagarria duten alargun-pentsiodunen kasuan gertatzen den bezala, alde aurretik eskuratzea eskatu ahalko da.

Pentsioa zergaldi osoan jaso ez den kasuetan, urtebetera bitarte igoko da, urteko lanbide arteko gutxieneko soldatarekin alderatuko da eta kenkari baterako eskubidea edukiko da, urtean pentsioa zenbat egunetan jaso den, horren arabera.

## 20. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

1. artikuluari beste idatz-zati bat, hamaseigarrena bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Idatz-zati berria. 67. bis artikulua aldatzea.

67. bis artikulua. Alargun-pentsioen ondoriozko kenkaria.



1. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alargun-pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko Legegintzako 1/1994 Errege Dekretuaren 50. artikuluan aipatutako osagarriak jasotzeko eskubidea badute, 2005eko urtarriletik aurrera kenkari gehigarria egin ahalko dute, kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako gutxieneko zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Aurreko lerrokadan ezarritako kenkaria kalkulatzeko, alargun-pentsioa ez baldin bada zergaldi osoan zehar jasotakoa, zenbateko hori urtera eramane da. Kasu horretan, zergaldian zehar alargun-pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duten egunen kopuruaren arabera kalkulatu da kenkaria.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde zurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egiten.

Erregelamendu bidez arautuko da kenkaria baliatzeko prozedura, bai eta alde zurretiko ordainketa eskatzeko eta lortzeko prozedura ere.

2. Gizarte Segurantzatik kotizaziopeko alargun-pentsioak kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako gutxienekoa baino handiagoak, baina lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak, jasotzen dituzten subjektu pasiboek, zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, alargun-pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Idatz-zati honetan araututako kenkaria ezin izanen da alde zurretik abonatu.

Alargun-pentsioa ez bada zergaldi osoan jaso, artikuluko honetako 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokadan ezarritakoari jarraituko zaio.

Erregelamendu bidez ezarriko da kenkari hori baliatzeko prozedura.”

Zioak: Bidezkoa iruditzen zaigu alargun-pentsio gutxienekoak lanbide arteko gutxieneko soldatari-kin parekatzea.

## 21. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan beste idatz-zati bat –hemezortzigarrena bis– gehitzeko zuzenketa. 75. artikuluko 6. arauaren testu berria.

75. artikuluko 6. araua.

“Seigarrena. 71. artikuluko 1.a) eta 1.b) idatz-zatiek aipatzen dituzten familia unitateen kasuan, 55. artikuluko 7. idatz-zatiko 2. erregela aplikatzearen ondorioz ezkontideetako edo bikote iraunkorreko kideetako batek ezin izan duenean osoki aplikatu 3., 4., 5. eta 6. idatz-zatietan aipatzen diren murrizketak, gerakina beste ezkontidearen gutxieneko pertsonalari eta familiarrari erantsiko zaio.”

Zioak: Zuzenketa tekniko bat da, 75. artikuluko 6. arauaren aipamena aldatzeko, 2. zuzenketaren bidez 55. artikuluan 7. idatz-zati berria sartzearen ondorioz.

## 22. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hemezortzigarren eta hemeretzigarren idatz-zatien artean beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, 77.6. artikulua aldatuko da. Hona testua:

Idatz-zati berria. (77.6. artikulua testu berria).

“6. 62. artikuluko 9. idatz-zatian aipatzen diren eta subjektu pasiboari dagozkion familia kenkariak gutxitu egiten dira zergaldia osatzen duten urte naturaleko egunen kopuruaren arabera, proportzionalki, baterako zerga-ordainketaren kasuan izan ezik; izan ere, horretan osorik zenbatuko dira.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera eginitako kenkariaren zenbatekoak gutxitu egiten du beste subjektu pasibo batzuek kontzeptu berberengatik egiten ahal dituzten kenkariaren zenbatekoa.”

Zioak: 55 eta 62. artikuluetan eginitako aldaketak direla eta.

**23. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluan beste idatz-zati bat –hogeigarrena bis– gehitzeko zuzenketa. Hogeigarren xedapen gehigarriaren 2. idatz-zatiko a) letraren testu berria.

Hogeigarren xedapen gehigarriaren 2. idatz-zatiko a) letra.

“a) Gradu guztietako zuzeneko ahaideek edo hirugarren gradura bitarteko alboko ahaideek familiako subjektu pasibo ezgaitu baten ondare babesuari egindako ekarpenek eskubidea emanen dute ekarleak zerga-oinarrrian kenkaria egiteko, urtean 10.000 euro gehienez. Berdin jokatu da ekarpena ezgaitasuna duen subjektu pasiboaren ezkontideak egiten badu edo hura beren kargura daukaten beste pertsona batzuek, tutoretza araubidean, harrera araubidean (Kode Zibilaren 172. artikuluan eta hurrengoetan arautua), umeordetza araubidean (Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumaren 73. eta 74. Legeetan arautua) edo beste autonomia erkidego bateko antolamendu juridiko zibilean izaera bera duten beste instituzio batzuen araubidean.” Ondare babestu bakoitzari diru-ekarle guztien artean egindako ekarpenei dagozkien kenkarien multzoa, urtean, ezin da 24.250 eurotik gorakoa izan. Kopuru hori gaindituz gero, ekarpen bakoitzari dagokion kenkaria gutxitu beharko da, modu proportzionalan.

Foru lege honen 55. artikuluko 7. idatz-zatiko 1. arauaren ondorioetarako, murrizketa horiek 55. artikuluko 1. idatz-zatian ezartzen direnekin batera eginen dira.”

Zioak: Zuzenketa tekniko bat da, 2. idatz-zatiko a) letraren azken lerrokadan 55. artikuluko 7. idatz-zatiko 1. arauaren aipamena aldatzeko, 7. idatz-zati berri hori 2. zuzenketaren bitartez 55. artikuluan sartzearen ondorioz.

**24. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari beste idatz-zati bat –hogeita hirugarrena– gehitzeko zuzenketa. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarri berria gehitzea.

“Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Ondare pertsonala osatzen duten ondasunez bali-

atzea zahartzaroko eta menpekotasunak eragindako premia ekonomikoei aurre egiteko.

Ez dira errenta gisa hartuko 65 urtetik gorako pertsonen ohiko etxebizitzaz baliatzearen ondorioz jasotako zenbatekoak, ez eta Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legeko 26. artikularen arabera menpekotasun larria edo menpekotasun handia duten pertsonen jasotakoak ere, betiere zahartzaroko eta menpekotasunak eragindako premia ekonomikoei aurre egiteko ondare pertsonala osatzen duten ondasunez baliatzeko egintzei buruzko arau finantzarioen arabera jokatzeko bada.

Zioak: Berariaz aipatzen ez bada ere, xedapen gehigarri hori alderantzizko hipotekari buruzkoa da, bai eta haren antzeko beste produktu batzuei buruzkoa. Horietan, izan ere, ondare pertsonala osatzen duten ondasunak erabiltzen dira zahartzaroko eta menpekotasunak eragindako premia ekonomikoei aurre egiteko.

Oso maiz gertatzen da gaur egun adineko pertsonen, beren ohiko etxebizitzaren jabeak izan eta etxebizitza horrek balio handia edukita ere, aldizkako edo hileroko diru-sarrera nahikorik ez izatea beren premiak asetzeko, edo, besterik gabe, beren egungo errentaz gaitetik hileroko sarrera batzuk eduki nahi izatea. Ohiko etxebizitza diru baliabide bihurtzea, haren jabetza galdu gabe, eta, kasua bada, etxebizitza hori hil arte erabiliz, pertsona horiek asko baloratzen duten gauza bilakatu da. Alderantzizko hipotekak eta antzeko beste figura batzuek helburu horixe dute: Hipoteka-berme hori duen kredituaren bitartez, higiezinaren jabeak hileroko errenta bat jaso ahal izanen du (aldi baterako nahiz bizi bitartean), eta hura hil eta ondoren jaraunsleak izanen dira erabilitako mailegua ordaindu beharko dutenak; bestela, entitateak higiezinaren bermea exekutatu eginen du.

Alderantzizko hipoteka, abenduaren 7ko 41/2007 Legeko lehen xedapen gehigarriari jarraituz –lege horrek, besteak beste, alderantzizko hipoteka eta menpekotasun aseguru arautzen ditu–, eskatzailearen ohiko etxebizitza den higiezinaren gaineko hipoteka-bermedun mailegu edo kreditu bat da; mailegu edo kreditu horretan, eskatzaileak eta, kasua bada, onuradunak, 65 urte edo gehiagoko pertsonak izanen dira, edo, bestela, ezgaituak nahiz edozein motatako menpekotasun egoeran dauden pertsonak. Zorra soilik hartzeko-dunak exijitu ahalko du eta, horrenbestez, bermea exekutatu ahalko da jabea hiltzen denean (edo, kontratuan hala ezartzen bada, azken onuraduna hiltzen denean). Mailegua edo kreditua amaitzen denean, hipoteka-zordunaren jaraunsleek erabakitzen badute amaitutako zorrak ez ordaintzea, har-

tzekodunak dagokion kobrantza lortu ahalko du soilik hipoteka-bermea duen higiezinaz –hau da, eskatzailearen ohiko etxebizitza– iristen den mugaraino. Honako salbuespen garrantzitsua egin behar da: alderantzizko hipotekak egin ahalko dira, halaber, zordunaren ohiko etxebizitza bestelako ondasun higiezinaren gainean, baina alderantzizko hipoteka horiek ez dituzte izanen ohiko etxebizitzaren gainean eraturikoek dauzkaten onura fiskalak.

Bada, alderantzizko hipoteka zer den zehaztu ondoren, xedapen gehigarri honetan bilatzen da, batetik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan figura horrek dauzkan ondorio fiskalak argitu eta arautzea; eta, bestetik, behar adina erakargarri tributario ematea alderantzizko hipoteka behar bezala bultzatzeko, zahartzaroan edo menpekotasun egoeran dauden pertsonen babes egokia ematen dien beste neurri baten aldeko apustua egiteko.

Xedapen gehigarri honetan ezartzen dena da ez direla errentatza hartuko alderantzizko hipoteka eratzearen ondorioz mailegu edo kreditu gisa pixkanaka erabilitako diru-zenbatekoak. Argi dago jasotako zenbateko horiek mailegutik heldu direla eta halakotzat jo behar direla; izan ere, zenbateko horiek egunen batean itzuli egin beharko dira, beren korrituak eta guzti. Ez dira, ezta ere, errentatza hartuko, oro har, alderantzizko hipotekaren antzeko figuren edo egoeren kasuan, 65 urtetik gorakoek eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen ohiko etxebizitzaren gainean eginiko erabilera, betiere erabilera horietan zahartzaroko eta menpekotasunak eragindako premia ekonomikoak aurre egiteko ondare pertsonala osatzen duten ondasun baliatze egintzei buruzko arau finantzarioen arabera jokatzeko bada.

Ohiko etxebizitzaren erabilerearen arloan gertatu ohi diren antzekoak diren figura horiek (nahiz eta kasuan kasu aztertu beharko diren, gerta daitezkeen egoerak direla eta) dira, besteak beste, pentsio-hipoteka (etxebizitzaren gaineko hipoteka-kreditu bat da, eta horren bidez lortzen den diru-zenbatekoarekin bizi bitarteko errenta bat kontratatzen da), pentsio-etxebizitza (bizitzaren jabetza soilaren salmenta, usufruktua gordeta; lortzen den zenbatekoarekin bizi bitarteko errenta-kontratu bat izenpetzen da), eta alokairurako lagapena (etxebizitza entitate bati lagatzea alokairuan jar dezan; entitate horrek jabeari alokairu horrengatik dirusarrera batzuk bermatuko dizkio).

## 25. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari beste idatz-zati bat –hogeita hiru-garrena– gehitzeko zuzenketa.

“Hogeita hiru: Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguru pentsioengatik (SOVI) kenkariak:

Abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeari 67. ter artikulua gehitzea. Testu hau izanen luke:

Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, lanerako ezintasunarengatik edo alarguntasunarengatik zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguru pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko Legegintzako 1/1994 Errege Dekretuaren 50. artikuluan aipatutako osagarriak jasotzeko eskubidea badute, kenkari gehigarria egiten ahalko dute, kasuan kasuko pentsiotik lortutako dirusarreraren eta errentan aitortutako gainerako dirusarreraren arteko diferentzia adina, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Aurreko lerrokadan ezarritako kenkaria kalkulatzeko, alargun-pentsioa ez baldin bada jaso zergaldi osoan, zenbateko hori urtera eramaten da. Kasu horretan, zergaldian zehar alargun-pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duten egunen kopuruaren arabera kalkulatu da kenkaria.

Gizarte Ongizate, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuari eskatu ahalko zaio kenkari hori alde aurretik ordain dezala. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egingen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta denbora baino lehengoko abonua eskatzeko eta eskuratzeko prozedura ere.”

Zioak: Transkribatutakoaren antzekoa den lege proposamen bat izapidetzeko onartu denez, bidezkoa da edo egin daitekeena da hura sartzea aurrekontuekin batera izapidetzen den aldaketa fiskalen testuan.

**26. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari beste idatz-zati bat –hogeita laugarrena– gehitzeko zuzenketa. Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarri berria gehitzea.

“Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Alderantziko hipoteka bat eratzearen ondorioz etorkizuneko errentak aseguratzea. Alderantziko hipoteka bat eratzearen ondorioz onuradunak lor ditzakeen aldizkako dirusarrerak erabili ahalko dira, guztiz edo hein batean, aseguratutako aurreikuspen plan bat kontratatzeke, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 55.1 artikuluko hirugarren zenbakian ezarritako modu eta baldintzetan.

Ondorio horietarako, erretiroaren inguruabarren parean jarriko da hartzailearen biziraupen-egoera, behin aseguratutako aurreikuspen plan horren lehen prima ordaindu eta hamar urte iragan eta gero.”

Zioak: Alderantziko hipoteka bat kontratatzerakoan funtsezkoa den gauza bat da erabakitzea aldi baterako errenta bat jaso nahi den edo bizi bitarteko errenta bat jaso nahi den. Hau da, erabili beharreko diru kopurua aldi jakin batean jaso behar den (kasu horretan, arriskua zordunarena da, zeren eta, denbora hori iragan denean heriotzarik gertatu ez bada, ez da errenta gehiago jasoko) edo zordunak bizirik dirauen bitarte guztian jaso behar den. Bigarren kasuan, praktikan, bizi bitarteko errenta aseguruko kontratu bat egiten ari da, eta horrek berekin ekarriko du errentak (bizi bitartean aseguraturik daudenak) txikiagoak izatea, mailegua ematen duen entitateak ahaleginak eginen dituelako (eta horretara bideratuko ditu bere kalkuluak) higiezinak balio duena baino diru gehiago inoiz ere eman behar ez izateko.

Bada, zuzenketa honen helburua da zehazgabetasun edo biko aukera hori arintzea: alderantziko hipotekaren erabilerak (hau da, hileko dirusarrerak) erabili ahalko dira, guztiz edo zati batean, aseguratutako aurreikuspen plan bat kontratatzeke; horretan, definizioz, aseguru-hartzailea aseguruduna eta onuraduna izanen da, korritu-tasa bat bermatuko da eta bizi bitarteko errenta hori jasoko dela aseguru ahalko da; errenta hori adineko pertsona askok edo menpekotasuna duten pertsona askok eskatuko dute alderantziko hipoteka bat kontratatzerakoan.

Kontuan hartuz aseguratutako aurreikuspen planean estalitako egoera nagusia erretiroa dela, ezartzen da erretiro-egoeraren parean jarriko dela hartzailearen biziraupen-egoera, behin aseguratutako aurreikuspen plan horren lehen prima ordaindu eta hamar urte iragan eta gero.

**27. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. Artikulu horren testua osatzen duen lerrokada kendu eta ondoko testuarekin ordeztu behar da.

“1. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, edukia ematen zaio apirilaren 26ko Legegintzako 129/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenen testu bategineko 35.1.A) artikuluko c) azpi-letrari. Honako testua izanen du:

“c) Parlamentuan ordezkari duten alderdi politikoak.”

2. Aurreko 1. idatz-zatian ezarritako ondorio berekin, 24. idatz-zati berria gehitzen zaio apirilaren 26ko Legegintzako 129/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenen testu bategineko 35.1.A) artikuluko c) azpi-letrari. Honako testua izanen du:

“24. Alderantziko hipotekaren eraketa, subrogazioa, berritze aldarazlea eta ezerezpena dokumentatzeko eskritura publikoak, egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notaritzako dokumentuen kuota gradualari dagokionez.

Ez dira salbuetsiko zordunaren ohiko etxebizitzaz bestelako edozein higiezinaren gainean eraturiko alderantziko hipotekei buruzko aurreko eragiketak.”

3. Beste idatz-zati bat, hogeita bigarrena, gehitzen zaio Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako xedapenen testu bategineko 35.II. artikuluari. Testu hori apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testua:

“22. Lanbide sozietateei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legeko hirugarren xedapen gehigarria, lehendik eraturiko sozietateak lege horren xedapenetara egokitzeko beharrezko egintza eta agiriei dagokienez.”

Zioak: Zenbait zerga aldatu eta beste tributu neurri batzuk ezartzeari buruzko Foru Legeko 3. artikulua arautzen du lanbide sozietateei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legearen aurretik eraturiko sozietateak lege horretan ezarritakoari egokitzeko egintzen eta dokumentuen salbuespena arautzen du. Salbuespenak eragina izanen du sozietate-eragiketen eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateetan.

Proposatzen den zuzenketak salbuespenaren sakoneko gaiari eta funtsari eusten dio, baina forman aldatzen du; izan ere, jotzen da legegintza-teknikaren ikuspuntutik egokiagoa dela salbuespen hori arautzea Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko Testu Bategineko 35. artikuluko II. idatz-zatian, salbuespen horiek lege-arauan bertan ager daitezzen, beste arau batzuetan barreiu egon beharrean. Hartara, 35. artikuluko II. idatz-zatian erabilitako legegintza-teknika erabiliz, 22. idatz-zati berria gehitzen zaio, Lanbide sozietateei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legeko hirugarren xedapen gehigarrian jasotako salbuespenerako igorpena egiteko. Azpimarratu beharra dago salbuespenak eragina izanen duela sozietate-eragiketen eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateetan. Gainera, hirugarren xedapen gehigarriak berariazko aldi bat ezartzen du salbuespen horrek indarra izan dezan: 2007ko ekainaren 16tik kontatzen hasiko den aldi bat, egun horretan hartu baitzuen indarra martxoaren 15eko 2/2007 Legeak.

Kontuan hartuta zuzenketa horren bitartez beste bi salbuespen gehitzen zaizkiola Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari, foru lege proiektuaren 3. artikulua hiru idatz-zati izanen ditu, eta lanbide sozietate-entzako salbuespena 3. idatz-zatia izanen da.

1. idatz-zatian, beste salbuespen bat gehitzen zaio Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko Testu Bategineko 35.1.A) artikuluari. Testu bategin hori apirilaren 26ko 259/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen. Aipatu 35.1.A) artikulua zergaren salbuespen subjektiboak arautzen ditu. c) azpi-letra, une honetan, araugintza-edukirik gabe dago, eta hartan sartu da Parlamentuan ordezkariak duten alderdi politikoek zerga hori dela-eta izanen duten salbuespena, alderdi politikoaren finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak estatu mailako erregulaziorako ezarri zuenarekin bat.

2. idatz-zatian, 24. idatz-zati berria gehitzen zaio Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko Testu Bategineko 35.1.B) artikuluari. Testu bategin hori

apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen. 24. idatz-zati berri horretan, alderantzizko hipoteken eraketa, subrogazioa, berritze aldarazlea eta ezerezpena dokumentatzeko eskritura publikoen salbuespena gehitzen da. Salbuespenak eragina du soilik egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notaritza-dokumentuen kuota gradualean.

Gainera, zehazten da ez direla salbuespenaren esparruan sartuko zordunaren ohiko etxebizitzaz bestelako higiezinaren gainean eraturiko alderantzizko hipotekak. Horrenbestez, salbuespenak soilik zordunaren ohiko etxebizitzaz gainera eraturiko alderantzizko hipoteketan izanen du eragina.

Azken batean, alderantzizko hipotekak kontratatzeak duten pertsonen babesa ematearen esparruan (funtsean 65 urtez gorako pertsonak edo menpekotasuna dutenak), Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuetsizat deklaratzeko dira, egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notaritza-dokumentuetako kuota gradualari dagokionez (gaur egun, 100eko 0,5), alderantzizko hipotekak kontratatzearekin loturiko ondoko eragiketak:

- a) Hipotekaren eraketa.
- b) Hipotekaren subrogazioa.
- c) Hipotekaren berritze aldarazlea.
- d) Hipotekaren ezerezpena.

Aurreko 7. zuzenketa adierazi bezala, hipoteka baten bitartez bermaturiko mailegu edo kreditu bat da alderantzizko hipoteka, eskatzailearen ohiko etxebizitza den higiezinaren bermea duena (dena den, bestelako higiezin batzuen gainean ere era daiteke); mailegu edo kreditu horretan, eskatzaileak eta, kasu bada, onuradunak, 65 urte edo gehiagoko pertsonak izanen dira, edo, bestela, ezgaituak nahiz edozein motatako menpekotasun egoeran dauden pertsonak. Ohiko etxebizitza diru baliabide bihurtzea, haren jabetza galdu gabe, eta, kasu bada, etxebizitza hori hil arte erabiliz, pertsona horiek asko baloratzen duten gauza bilakatu da. Kontuan izanda figura horretarako babesak berekin dakartzan onura ekonomiko eta sozialak, proposatzen dugu harentzako pizgarriak ematea, ikuspuntu tributariotik, Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan.

**28. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikuluari beste idatz-zati bat, bigarrena, gehitzeko zuzenketa. 8. artikuluko egungo idatz-zatia 1. idatz-zatia izanen litzateke hemendik aurrera.

2. idatz-zatia.

“2. Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari xedapen gehigarri bat gehitzea.

Beste xedapen gehigarri bat gehitzen zaio, bederatzigarrena, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeari. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako subjektu pasiboek eginiko dohaintzen kasuan, foru lege honek indarra hartzen duenetik izanen du xedapenak eragina, eta, sozietateen gaineko zergako subjektu pasiboek dohaintzen kasuan, berriz, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen du eragina. Hona testua:

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Alderdi politikoentzako dohaintzak.

Pertsona fisiko edo juridikoek alderdi politikoei emaniko diruzko nahiz ondasunezko dohaintzei, alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak ezarritako mugen barranean, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeko II. tituluko 1. kapituluaren aurreikusitako dohaintzengatikoen kenkariak aplikatuko zaizkie, hartan ezarritako beharkizun eta baldintzen arabera.”

Zioak: Alderdi politikoen finantziarioari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan, argi bereizten dira alderdi politikoentzako dohaintzak (bai pertsona juridikoei bai pertsona juridikoei eman ahalko zaizkienak) eta afiliatuen kuotak eta ekarpenak. Azken horiek, pertsona fisikoak diren afiliatuek eginikoek, PFEZko zerga-oinarria gutxituko lukete, parlamentu-talde honek aurkezturiko zuzenketaren arabera. Edukian eta forman ere bestelako figura bat dira alderdi politikoei eginiko dohaintzak; horiek, izan ere, esan den bezala, pertsona fisikoek eta juridikoek egin ahalko dituzte. Zuzenketa honen xedea da dohaintza horiei fundazioentzako dohaintzei emaniko tratamendu bera ematea; hori horrelaxe izanen da dohaintza-emailea pertsona fisikoa denean eta pertsona juridikoa

denean ere, alegia, PFEZaren kuota 100eko 25 jaistea (dohaintza-emailea pertsona fisikoa bada) eta zerga-oinarritik ken daitekeen partida izatea, muga batzuekin (dohaintza-emailea pertsona juridikoa denean).

Zehaztapen batzuk egiten dira horri dagokionez: dohaintzak dirutan edo ondasunetan ordaindu ahalko dira; betiere, 8/2007 Lege Organikoak ezarritako mugetara doitu beharko dute eta Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean adierazitako baldintzak bete beharko dituzte.

Era berean, arauak indarra noiz hartuko duen ere behar bezala argitzen da.

a) pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako subjektu pasiboek eginiko dohaintzarako, foru lege honek indarra hartzen duenetik izanen du eragina.

b) sozietateen gaineko zergen gaineko subjektu pasiboek eginiko dohaintzarako, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izanen du eragina.

**29. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat, bederatzigarrena, gehitzeko zuzenketa. Bederatzigarren artikulu honen bidez xedapen gehigarri bat, bederatzigarrena, gehitzen zaio Kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legeari.

“Bederatzigarren xedapen gehigarria. Kontsolidazio fiskalaren araubidea.

Ekonomia eta Ogasun kontseilariak behar diren arauak emanen ditu sozietate kooperatiboek berezitasunetara egokitu daitezkeen sozietateen gaineko zergaren kontsolidazio fiskalaren araubidea arautzen duten xedapenak; hau da, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko X. titulua VIII. kapitulu eta Sozietateen gaineko zergaren Erregelamendua onetsi zuen urriaren 13ko 282/1997 Foru Dekretua.”

Zioak: Kooperatiben mundua asko garatu da, bereziki nekazaritzaren, industriaren eta finantzen arloan, eta horrek berekin ekarri du egoki zehaztu beharra kooperatiba-taldeen balantzeak eta emaitzen kontuak bateratzeko arauak. Arautze hori, bereziki, merkataritzaren eta kontabilitatearen arlo-

etan gauzatu da, horietan badago-eta horri buruzko araudi egokirik.

Arrazoi horiexengatik beharrezkoa da Nafarroako tributu-araudian, eta bereziki sozietateen gaineko zergan, behar diren urratsak egitea sozietate kooperatiboen ezaugarri bereziak isla daitezen kontsolidazio fiskalaren araubidean, eta sozietate horiek aprobeza ahal izan ditzaten zerga horren abantailak.

Proposatutako xedapen gehigarrian, kontuan hartuz kooperatiba-sozietateek berezitasun handiak dituztela oinarriko arloetan –honakoetan, besteak beste: kontsolidazioa egin dezakeen taldearen perimetroa, entitate taldeburuaren kontzeptua, zerga oinarria, desagertzeak eta kide berriak, eta kuota kontsolidatu edo bateratua– Ekonomia eta Ogasun kontseilaria gaitu egiten da behar diren arauak eman ditzan sozietate kooperatiboen berezitasunetara egokitu daitezen sozietateen gaineko zergaren kontsolidazio fiskalaren araubidea arautzen duten xedapenak.

### 30. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lanaren errentak zigortzen eta zehatzen dituen eredu fiskal batean, ez gaude ados enpresen irabaziei onura fiskal jakin batzuk denboran luzatzearekin.

### 31. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarria.

Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan gutxieneko pertsonal eta familiarrek duten tratamendua aldatuko duena.

Aldaketa horren bidez, gutxieneko pertsonal eta familiarren tratamendua egiten da zergako

kuota osoaren kenkari gisa, eta ez zerga oinarriaren murriztapen gisa.”

Zioak: Gehikortasun-printzipioaren aurkakoa da indarreko sistema; zenbat eta handiagoa izan zergadunaren errenta, handiagoa da gutxieneko pertsonal eta familiarretatik eratorritako aurrezpen fiskala.

### 32. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen gehigarri berria. Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak parekatzea lanbide arteko gutxieneko soldatarekin.

Baldin eta zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren jasotzen duten Nafarroako herritarren dirusarrera gordinak ez badira iristen, kontzeptu guztiak batuta –ohiko etxebizitzakoari dagozkionak salbu–, lanbide arteko gutxieneko soldatarak, herritar horiek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera eskubidea izanen dute Nafarroako Gobernuak, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, aseguru horren ondoriozko pentsio hori pareka diezaie lanbide arteko gutxieneko soldatarekin.”

Zioak: Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren ondoriozko pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea.

### 33. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

2. artikuluari beste xedapen gehigarri bat, bigarrena, gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarri berria. Karga-tasa.

Foru lege honen 50.1.a) artikuluan ezarritako 100eko 30eko karga-tasa 100eko 35ekoa izanen da 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan.”

Zioak: Gure ustez, 9 milioi euro baino gehiago fakturatzen dituzten enpresentzat, % 35eko tasa orokorra berreskuratu behar da sozietateen gaine-

ko zergan. Enpresen etekinei zergak jaisteko urtero-urtero norgehiagokan ibiltzearen aurka gaude.

#### **34. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen iragankor berria.

2007rako, Nafarroako Gobernuak foru lege honetako lehenengo artikuluko 14. bis idatz-zatiaren edukia beteko du foru lege hau onesten dene-tik hilabeteko epean, gehienez ere.

2007ko zenbakiari aplikatzekoa izanen da foru dekretu bidez argitaraturiko likidazio oinarrien eta zerga-tipoen taula.”

Zioak: Bermatzea deflaktazioa egiteko 2007ko inflazio erreala hartuko dela oinarri, inflazio hori proiektuan aurreikusitako % 2az oso goiti baitago.



## **Foru Lege proiektua, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK*

Nafarroako Parlamentuak, 2007ko abenduaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 131.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 2an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK*

Nafarroako Parlamentuak, 2007ko abenduaren 28an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 131.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 2an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.**

### *AKATS ZUZENKETA*

Akats bat aurkitu da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2007ko azaroaren 26an hartutako erabakiaren gaztelaniazko testuan (2007ko azaroaren 28ko gaztelaniazko 33. NPAO). Erabaki haren bidez xedatu zen zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua izapidetzea. Ondoren dator zuzenketa:

Azken lerrokadako azken tartekia kentzea. Alegia, honakoa dioena: "El plazo de mantenimiento de enmiendas finalizará a las 12:00 horas del día siguiente a la aprobación del dictamen."

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 9an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, mihi urdinaren gaitza dela-eta hartuko diren neurri zehatz eta prebentziozkoen buruzkoa.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2007ko abenduaren 28an egindako bileran, erabaki zuen M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak aurkezturiko ondoko galdera, mihi urdinaren gaitza dela-eta hartuko diren neurri zehatz eta prebentziozkoen buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2007ko abenduaren 4ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 2an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **62/2007 Ebazpena, abenduaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak emana, erakundearen bideozaintza fitxategia sortzen duena.**

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak urriaren 17an emandako 38/07 Ebazpenaren bidez, erakunde horretan dauden datu pertsonalen fitxategi automatizatuak aldatu ziren.

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoari jarraikiz, erakunde horretan bideozaintza fitxategia sortzea beharrezko da, irudiak datu pertsonalak baitira, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren azaroaren 8ko 1/2006 Instrukzioan espresuki ezarritakoaren arabera.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

### **EBATZI DUT:**

**Lehena.-** Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundearen bideozaintza fitxategia sortzea.

**Bigarrena.-** Automatizatutako fitxategiak honako ezaugarriak izanen ditu:

1. Fitxategiaren izena: Bideozaintza fitxategia.

a) Aurreikusitako xede eta erabilerak:

Fitxategiaren helburua erakundearen egoitzaren eta garajearen sarbidearen kontrola da, bai eta kanpoaldeko sarbidearen bideozaintza.

b) Ukitutako norbanakoak eta taldeak:

Zaindutako guneetara sartzen diren pertsonak.

c) Datuak biltzeko prozedura:

Bideozaintza sistemetan txertatutako kamaren bitartez egindako grabazioak. Bideozaintza sistemek poliziarekin konexioa izan dezakete.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak:

Irudiak.

e) Datu pertsonalen lagapena:

Ez da daturik lagako.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa:

Kudeaketa-teknikariari dagokio fitxategiaren zaintza, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak gainbegiratuta.

g) Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideaz baliatzeko nora jo:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoa. Helbidea: Arrieta kalea, 12, behea, Iruña (31002 posta kodea). Telefono zenbakia: 948 20 35 71. Helbide elektronikoa: info@defensornavarra.com.

h) Segurtasun neurriak:

Oinarrizko maila.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak fitxategiaren inguruan diktatzen dituen egintzen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, egintza argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, deuesetan galarazi gabe, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jartzea, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari zuzendua, egintza jakinarazten denetik hilabeteko epean.

**Laugarrena.-** Ebazpen hau kontu-hartzaileari, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara, Nafarroako Aldizkari Ofizialera eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialera igortzea, argitara dadin.

Iruñean, 2007ko abenduaren 11n

Nafarroako arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

